

EKAINAK



EGUNERO DA!

LGTBIQ+ ASKAPENERAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Ekainaren 28a, LGTBIQ+ Askapenerako Nazioarteko Eguna, LGTBIQ+ kolektiboarentzat urteko egunik garrantzitsuenetariko bat da, LGTBIQ+ fobiaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin batera (Maiatzaren 17a). Data horietan, besteak beste, kolektiboa osatzen dugunok garena askatasunean bizitzeko aukera aldarrikatzen dugu.

2021eko ekainaren 28a ate joka dugula, azkenaldian gertatzen ari den guztiak arduratuta, kolektiboaren baitan ematen diren aldarrikapenak egunero gogoan izateko beharra mahai gainean jarri nahi izan dugu. Bazterketa, gorrotoa eta erasoak egunero pairatzen ditugulako, gure aldarrikapen eta borroka ezin daiteke data zehatz batzuetara mugatu. Indarkeriek forma eta fondo ezberdinak dituzte, eta ilunetik atera eta fokoa horien gainean jarri nahi izan dugu modu horretan.

Izan ere, ezinbestekoa iruditzen zaigu ideia hori horrela planteatzea. Zisheteronormatik ateratzen garenok geroz eta ikusgaitasun gehiago lortu, gure eskubideak eta gure bizitzak askatasunean bizitzeko aukera geroz eta gehiago aldarrikatu, eta bazterketa, gorrotoa eta erasoak geroz eta gehiago salatu, norma horren beraren erreakzioa geroz eta baztertzailagoa eta arrisku-suagoa izaten ari da. Azken hilabeteetan Trans* lege estatalarekin gertatu denak hori guztia baieztatu besterik ez du egin.

Era berean, pasa den ekainaren 6an Basaurin gertatutako eraso homofoboa ez zen kasualitatea izan. 13 gaztek mutil bati bere bikotea muxukatzeagatik emandako jipoiak jendarteak oraindik gainditu ez duen egiturazko LGTBIQ+ fobia baten baten adierazle garbi bezain larria da. Jipoi hori horren guztiaren sintoma bat da, izeberg-aren punta. Eta izeberg-ak ezkututzen duena da mahai gainean jarri behar dena; jipoiak azpian gordetzen duen guztia, alegia.

Hortaz, argitara ekarri nahi duguna da askotariko jipoi, bestelako eraso eta irainen atzean hori guztia sostengatzen eta zilegi bihurtzen duen estruktura sozio-kulturala. Guzti horrek gure artean jarraitzen du. Jipoiak izeberg-aren tontorrean aurkitzen den bezala, graziaz gabeko *txiste txar* hori ere LGTBIQ+ fobia da: gorroto eta bazterkeriaren hari berdinak lotzen ditu.

Horrekin guztiarekin batera, LGTBIQ+ kolektiboari zuzendutako politiken eta horien ardura duten erakunde publikoen hipokresia ere ozen salatu nahi dugu. Ez du ezertarako balio Maiatzaren 17a eta Ekainaren 28a bezalako egunen bueltan adierazpen instituzional ponposoak egitea edota banderaren atzean argazkia ateratzea kolektiboari eragiten dieten politikei dagokienean pauso tinko eta errealak gauzatzen ez badituzte.

Zentzu horretan, Nafarroako kasua aipatu nahi dugu. 2021eko ekainaren 18an Nafarroako LGTBIQ+ berdintasun Sozialerako Legea onetsi zenetik lau urte beteko dira. Legeak Nafarroa Garaiko administrazioen alor guztiak jorratzen ditu, baina esparru gehien-gehienak ez dira ukitu ere egin: zaila da marka hori haustea. Begi bistan da LGTBIQ+ legearekin itxura "progrea" lortu nahi zutela, apalategi batean sartu eta ahal den gutxien erabiltzeko gero. Hau da, azaleko berniza eman jendartearen eta botere egituren LGTBIQ+ fobia batere aldatu gabe.

EAEk LGTBIQ+ lege propiorik ere ez du. Haren ordez, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak urtero OPUS DEI erakundeak kudeatzen dituen zentroak 13 milioi euro publikorekin finantzatzen ditu. Zentro horiek sexuaren arabera banatutuako hezkuntza ematen dute, eta homosexualitateari buruz zernolako ikuspuntua duten asmatzea ez da oso zaila. Hezkuntza komunitatea sexu eta genero aniztasunean trebatzeko politika eraginkorretan baino, Ekainaren 28ra begira antolatzen diren ekintzetan inbertsio handiagoa egiten duten erakundeei buruz ari gara hitz egiten, azken finean. Hori guztia lehenago aipatu dugun hariaren parte ere bada.

Zoritxarrez, hari hori geroz eta gehiago nola tenkatzen ari den ikusten ari gara. Jendarte osasuntsuago eta erosoago bat eraikitzen aritu beharrean, zenbaitek atzera egin eta ideia hori deseraikitzekeo esfortzu galantak egiten ari direla ikusten ari gara, ardura handiz. Izaera eta bizimodu guztiak barnebilduko lituzkeen jendarte bat aldarrikatu nahi dugu, behar-beharrezkoa baitugu.

Beraz, azpimarratu nahi dugu jendartearen eraldaketa sozio-kulturala gauzatzeko geroz eta hezkuntza politika ausartagoak behar ditugula. Aniztasunari behar duen aitortza emango lioketen politikei buruz ari gara: enpatia landu eta elkarlana sustatuko luketenak, bazterketa salatu eta gorrotoa eta LGTBIQ+ fobiaren kargu egingo liratekeen politikak dira, hain zuzen ere.

Egunero garelako, egunero gaudelako!

